

MUTILOAKO UDALA

2019ko URTARRILAK 30eko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hemeretziko urtarrilak hogeita hamar.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Xabier Aranburu Altuna.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Julen Zabala Garcia.
Ion Mujika Perez.
Jule Aranburu Mariezkurrena.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpi tèrdiak.

1.- Aurreko akten onespèna.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako aktak irakurri ondoren, 2018-11-20, 2018-12-04 eta 2018-12-27koak aho batez onartzen dira.

2.- Alkatezaren Ebazpenak.


Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

*Plazako 6 etxebizitzaren Obra zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazioa Oscar Fernandez Garcia Arkitekto Teknikoari esleituz (11997,40€ gehi BEZa).

*Plazako 6 etxebizitzaren Obra zuzendaritza Kele Lasa Arkitektoari esleituz (10980€ gehi BEZa).

3.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:



MUTILOAKO UDALA

1	ORONA: IGOGAILUAREN MANTENIMENTUA	204,08
2	IÑAKI TELLERIA: OSTATUKO ZERBITZUAK	27
3	USURBE: ZIGILUAK	128,38
4	ITXARO MENDIZABAL: WEBGUNEA GARATU	667,8
5	TECNIKRONOS: ERLOJUAREN MANTENIMENTUA	432,45
6	NJ SEGURTASUNA: MINATAKO KORRODINAZIOA	242
7	BIGMAT URBIL: MATERIALAK	18,92
8	CORREOS: POSTA KUOTAK	11,26
9	BIOK: MATERIALAK	8,22
10	ILARKI: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ABENDUA	685,9
11	BIGMAT URBIL: MATERIALAK	32,61
12	URGO: ZABOR POLTSAK	91,6
13	ALONSO: MATERIALAK	48,29
14	SABICO: HARTZAINDEGIKO DETEKTORREAK	45,38
15	EUSKAL EDITOREA: AGENDA	12
16	ABADIANO: MEATEGIKO OBRA	22062,47
17	EUSKAL EDITOREEA: BERRIA HARPIDETZA	110
18	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	1497,3
19	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	36,3
20	HOBBY KIROLAK: BALOIAK	269,59
21	LANDARRI: HILERRIKO MANTENIMENTUA	1168,82
22	TOLOSAKO HILTEGIA: EKARPENA	47
23	ECA: IGOGAILUAREN IKUSKAPENA	91,96
24	CORREOS: POSTA KUOTAK	13,42
25	GOIERRIALDEA: PEREGRINAZIOA	231
26	ALONSO: MATERIALAK	134,64
27	INTERNET PEOPLE: DOMEINUA ETA WEB	89,96
28	AIZKORRI FUTBOL TALDEA: DIRULAGUNTZA	300
29	GOIUR: ERROTATXON EGINDAKO LANAK	67,76
30	GOIUR: OSTATUN EGINDAKO LANAK	258,52
31	GOIUR: IKURRIÑA JARRI	89,54


4.- 2019ko Aurrekontuaren onarpena.

2019 urteko Aurrekontu Orokorra ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, aho batez hasierako onarpena egiten da. Jendaurrean jarriko 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Aurrekontua kapituluka laburturik hau da:

Sarrereren egoera

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko Zergak	47.650,00
2	Zeharkako Zergak	1.000,00



MUTILOAko UDALA

3	Tasak eta bestelako sarrerak	27.640,00
4	Transferentzia arruntak	256.350,00
5	Ondarezko sarrerak	130.700,00
7	Kapital transferentziak	113.160,00
Guztira		576.500,00

Gastuen egoera

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	140.852,00
2	Ondasun arrunten erosketak	124.077,00
3	Finantza gastuak	5.550,00
4	Transferentzia arruntak	55.021,00
6	Inbertsio errealak	181.000,00
9	Pasibo finantzarioak	70.000,00
Guztira		576.500,00

Era berean, 2019. urterako Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartzen dira.

5.- Udalitz 2019ko ordainsarien igoeren Eudelek bidalitako Gomendioaren onarpena.

Jarraian, Langileen soldata igoerarekin Eudelek bidalitako gomendioaren berri Osoko Bilkurari ematen zaio. Gomendioa horrela dio:

2018/12/27an argitaratu zen EAOn 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Legedekretua: horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019. urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

2018ko uztaillean, EUDELeK zirkular bat bidali zuen, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legean jasota dauden 2018ko ekitaldirako ordainsari igoera aplikagarrien inguruko gomendio egokiekin, eta, orain, 24/2018 Errege Dekretu-legea argitaratu ostean, gomendio berdin-berdina egitea komeni da 2019ko ordainsari igoerei dagokienean.



MUTILOA UDALA

Hain zuzen, 24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3. Bi artikuluan hau dago xedatuta:

- 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneousotasunari lotuta, bai langileei euri dagokienez, eta bai langileriaren antzintasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarteekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.

- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:


BPGd 2,1aren berdina: %2,30. BPGd 2,2aren berdina: %2,35. BPGd 2,3aren berdina: %2,40. BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldez aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

- Gainera, soldata masaren ehuneko 0,25eko igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, honakoak egin ahal izateko: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berraztertu, lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin. Artikulu honetan 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoeran zehaztutako Administrazioetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori ehuneko 0,3ra bitartekoa izan daiteke.

Artikulu honek hitzez hitz dioena ezagututa, eta horrek izan ditzakeen irakurketak argitzeko asmoz, EUDELeK egokitzat jo du Euskadiko udalei honako GOMENDIO hau egitea:

• Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren inguruan, 2019/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko %2,25.



MUTILOAKO UDALA

• Aipatutako 3. Bi artikuluko bigarren multzoari dagokionez, une honetan ez da ezagutzen sortutako soldata masaren igoeraren ehuneko zehatza. Hori dela-eta, Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onospena emateko zain egon behar da, betiere, une honetan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe. 3. Bi artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, igoera hori, dagokionean, 2019/07/01etik aurrera gehituko litzateke.

• Aipatutako 3. Bi artikulua azken paragrafoarekin lotuta, eta udal autonomiari kalterik eragin gabe, 2018ko ekitaldian* aurrekontu superabit egoera izan duten Euskadiko udalei gomendatzen diegu, euren finantza eta aurrekontu aukeren neurrian, soldata masaren 0,3ko igoera gehigarria baimentzeko. Aipaturiko munta 3. artikulua Bi, azken paragrafoan, edo aplikatzekoa den beste edozeinetan jasotako legeformulen bitartez banatuko da, hau guztia beti negoziazio kolektiboaren eta udal autonomiaren barruan. 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoerarik bizi izan ez duten udaletarako, EUDELen gomendioa da igoera hori soldata masaren %0,25ekoa izatea.

GOMENDIO horren bitartez, EUDELeke legezko agindu horren irismena zebaterainokoa den argitu nahi du, eta, aldi berean, hori interpretatzeko duen interesa jasota gera dadin bermatu, legezotasunaren barruan, langile publikoentzat modurik onuragarrienean, betiere, erakundeen efikazia eta lan-ingurunearen kalitatea hobetu ahal izateko. Horrek guztiak etorkizunean aurrerapausoak egiteko bidea prestatzeko aukera emango duen uste sendoa dugu, UDALHITZ Hitzarmen Arautzaile berri bat lortzera jo behar duen hitzarmen kolektibo baten baitan.

EUDELeke berretsi egiten du “UDALHITZ 2008 2010 Hitzarmena” hitzez hitz betetzearen garrantzia, lortutako akordioak egiaz betetzean baitatza haren berme nagusia, eta, gainera, sektore mailako hitzarmen berria eskuratu ahal izatea bidezkozat jotzeko balio du.

Gomendio hau ikusita Alkateak proposatzen du udaleko langileei soldataren igoera horiek aplikatzea. Proposamen hau ikusita aho batez onartzen da.

6.- Txabolen eraikuntza arautzen duen Ordenantza aldaketa.

Segidan Alkateak proposatzen du Txabolen eraikuntza arautzeko indarrean dagoen Ordenantzari aldaketa hau egitea:

5. artikuluan beste atal bat sortzea:

d) Bi erabileratarako:

Frutikultura edo Baratzezaintza eta gainera hegaztiak, untxiak eta antzekoak:


- Gutxienezko azalera: 5000 m².

- Eraikigarria:

Frutikultura edo Baratzezaintzarako: 8m², lanabesak gordetzeko.

Hegaztiak, untxiak eta antzekoak: 0,5 m² buruko, gehienez 12m².

Gehienez, txabolaren azalera eraikigarria 20 m².



MUTILOAKO UDALA

Idazkariak adierazten du ordenantza aldatzeko prozedura: Lehenengo pausua: proposamena web orrian zintzilikatzea ekarpenak jasotzeko 20 laneguneko epean. Aurkeztutako ekarpenekin proposamen bat egin eta hasierako onarpena Osoko Bilkura baten jaso. Jende aurrean jarri espedientea 30 laneguneko epean alegazioak jasotzeko. Behin betiko onarpena eman beste Osoko Bilkuran eta aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu indarrean sartzeko.

Hau guztia ikusita Alkateak proposatzen du Txabolen eraikuntza arautzeko indarrean dagoen Ordenantza aldatzeko prozesua martxan jartzea. Hau da: proposamena web orrian zintzilikatzea ekarpenak jasotzeko 20 laneguneko epean.

Proposamen hau aho batez onartzen da.

7.- Mutiloa bildua 3, 1. eskubian dagoen etxebizitzaren alokairua.

Jarraian, Alkateak etxebizitza hau alokatzeko pertsona bat interesatu dela adierazten du, Iñaki Telleria Salazar, hain zuzen ere. Ondasun bat alokatzeko prozedura, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduak 92. artikulua diona Idazkariak irakurtzen du. Literalki artikulua honek horrela dio:

“1. El arrendamiento y cualquier otra forma de cesión de uso de bienes patrimoniales de las Entidades locales se regirá, en todo caso, en cuanto a su preparación y adjudicación por la normativa reguladora de contratación de las Entidades locales. Será necesaria la realización de subasta siempre que la duración de la cesión fuera superior a cinco años o el precio estipulado exceda del 5% de los recursos ordinarios del presupuesto.

2. En todo caso, el usuario habrá de satisfacer un canon no inferior al 6% del valor en venta de los bienes.”

Udal Arkitektoak egindako ondasunaren balorazioaren berri ematen da.


Proposamen hau ikusita eta etxebizitza hau alokatzea Mutiloako Udalarentzat interesgarria izango dela kontsideratuz, eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduak diona betetzen duela kontutan hartuz, proposamen hau onartzen da:

Lehenengoa.- Mutiloa bildua-3, 1. eskubian dagoen etxebizitza Iñaki Telleria Salazar alokatzea 2019ko otsailaren 1etik, bost urterako eta 250 €ko hileroko errentarekin.

Bigarrena.- Mantenimendu eta horniduraren gastuak Iñaki Telleria Salazarren kargura izango dira.

Hirugarrena.- Alkate Jaunari dagokion kontratua sinatzeko ahalmena ematen zaio.

8.-Galde-erreguak.



MUTILOA UDALA

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zazpi tèrdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.